

Hiri ekonomiak eta gutxituz doazen distantziak

Saskia Sassen

Kontu bat aztertzeko eskatu didate: ea zergatik eta zein modutan duten garrantzia gaur egun hiri ekonomiek, globalizazio eta telekomunikazio testuinguru batean. Ba al dago desberdintasunik egun betetzen duten rolaren eta duela hogeitahogei hamar urte betetzen zutenaren artean? Halaber, perspektiba partikular bat da gaur egun hiriek duten garrantziaren inguruan, zeren eta hiri gehienek harreman gutxi izan baitute ekonomia globalarekin, eta haren hazkunderaren oihartzun xumeak besterik sentitu ez dutelako. Partziala ere bada perspektiba hori, hiriek beren ekonomiak baino askozaz gauza gehiago hartzen baitituzte barne. Baina garrantzitsua da gai horretan sakontzea, hainbat eta hainbat aditu eta politikagile sinetsita baitaude, antza denez, globalizazioak eta informazioaren teknologia berriek hirien garrantzi ekonomikoaren amaiera markatzen dutela.

Globalizazioarekin eta telematikarekin sortutako sakabanatze gaitasunak -fabrikak atzerrian kokatzea, mendeko eta bigarren mailako enpresa sare globalen hedapena, bulego nagusien lekualdatzea hiri inguruetara, hirien erdialdeetatik kanpo-globalizazioaren eta telematika erabileraren testuinguru ekonomiko batean hiri ekonomiak zaharkitu egingo zirela baieztatzen eraman zituen behatzaile asko. Izan ere, herrialde oso garatuetako behinolako gune industrial handietako askok gainbehera handia izan baitzuten. Baina aurreikuspen guztien aurka, hiri handi kopuru esanguratsu batek bere botere ekonomikoaren kontzentrazioa ere hazten ikusi zuen. Zergatik?

Galdera horri erantzutean nire erantzuna laburtzeko modu bat, eta horixe da hemen garatu nahi dudana arrazoibidea, izan liteke esatea kokapena funtsezkoa dela globalizazio ekonomikoa eratzen den zirkuitu anitzentzat. Hedatze horretarako kokapen estrategiko mota bat, hemen aztertuko duguna, horixe da: hiria. Esportazioak prozesatzeko guneak edo Silicon Valley gisako maila teknologiko garaiko kokapenak dira beste kokaleku garrantzitsu batzuk.

Jarduera ekonomikoen sakabanatze geografikoaren eta egungo aro ekonomikoaren muinean dagoen sistemen integrazioaren konbinazioak funtsezko funtzio berri edo zabalduen ezarpena ekarri du, eta transakzioen konplexutasunak enpresek egiten duten zerbitzu oso espezializatuen eskaria areagotzea ekarri du. Informazioen teknologiak ahalbidedutako sakabanaketa dela eta zaharkituta geratu beharrean, hiri kopuru erabakigarri bat:

- a) beren baitan agindu funtzioak kontzentratzen dituztenak dira;
- b) industriosteko produkzioarako kokapenak dira gure aroko puntako industrientzat, finantzentzat eta zerbitzu espezializatuentzat;

- c) enpresek eta gobernuek finantza tresnak eta zerbitzu espezializatuak eros ditzaketen merkatu nazional edo transnazionalak dira.

Mota horretako zenbat hiri dauden, zein den haien hierarkia aldakorra, zer aurkikuntza berri dakarten... horiek guztiak eztabaidarako gaiak dira. Gero eta adostasun handiagoa dago existitzen dela hiri nagusien sare bat, bai iparrekoak bai hegokoak, zentro moduan funtzionatzen dutenak kapital globalari zerbitzuak koordinatu, kontrolatu eta emateko.

Hiriek ekonomia globalean duten garrantzi gero eta handiagoa aztertzeke orduan, kasu muturreko bat sare elektronikoko eta komertzialek finantzen arloan arestian izandako garapena izan da. Xehetasunetan zentratuko naiz gai honen inguruan. Hiriak globalizazio ekonomikoaren analisi batean sartzeak ahalbidetu egiten digu globalizazio ekonomikoaren prozesuak kokaleku espezifikoei ezarritako konplexu ekonomiko gisa berkontzeptualizatzea. Hirietan zentratzeak nazio-estatua osagai azpinaional ugaritan deskonposatzea ekartzen du; horietako batzuk estu artikulatuta daude ekonomia globalarekin, eta beste batzuk ez. Adierazten du halaber ekonomia nazionalak gero eta garrantzi gutxiago duela ekonomia globalaren barruko kategoria bat moduan.

Zerbitzuek ekonomian betetzen duten rol berria: eragina hirietan

80ko hamarkadaren hasieratik mundu ekonomian gertatutako hiri mota berezi baten rol berri edo izugarri hedatu hori bi prozesu garrantzitsuren gurutzatzearen emaitza da funtsean. Bata jarduera ekonomikoaren globalizazioak izandako hazkunde handia. Horrek areagotu egin du transakzio ekonomikoaren eskala eta konplexutasuna, eta horrek bere aldetik goi mailako multinazionalen bulego nagusi funtzioen garapena eta enpresentzako zerbitzuen garapena ekarri du, batez ere zerbitzu korporatibo aurreratuen hazkundera. Beste bat da ekonomiaren antolakuntzan gero eta zerbitzu gehiago erabiltzen direla; prozesu hori begien bistakoa da industria sektore guztietako enpresetan, meatzeetatik hasi eta finantzetaraino. Horrek azkartu egin du enpresentzako zerbitzuen hazkundera sektore guztietan, bai barne merkatura bai nazioarteko merkatura bideratutako enpresentzako zerbitzuen, alegia.

Hiri ekonomiaren ikuspegitik, sektore industrial guztietako enpresek egindako zerbitzu eskari gero eta handiagoa da prozesu gakoak, baita halako zerbitzuen produkzioarako lehenetsitako lekuak hiriak izatea ere, alor globalean, nazio alorrean edo eskualde alorrean. Zerbitzuen intentsitate gero eta handiagoa antolakuntza ekonomiko orokorraren barruan eta zerbitzu korporatibo aurreratuen produkzio baldintza espezifikoei, informazio teknologikoei eskuratzeko baldintzak barne, konbinatu egiten dira zenbait hiri berriro «produktio» leku gako bihurtzeko, rol hori galdu egin baitzuten fabrikazio masiboa

sektore ekonomiko nagusi bilakatu zenean. Mundu mailako hiriak dira, edo hiri globalak, eta horietatik dira artikulu honen muina.

Nahiz eta 60ko hamarkadan hasitako produkzioaren internazionalizazioaren ondorio gertatutako industria guneen gainbehera erabat dokumentatuta eta esplikatuta egon, duela gutxi arte ezin zen gauza bera esan zerbitzu-hiri nagusien hazkundeaz 80ko hamarkadan zehar. Gaur egun giro akademiko aberats berri bat bizi dugu, eztabaida eta desadostasun ugari hiriek ekonomia global baten barruan duten rola inguruan.

Arrazoi on askok esplikatzen dute zergatik izan den zailagoa ulertzen hirien rola informazio industria aurreratuentzako produkzio leku gisa. Informazio industria aurreratuak bere produktuen hipermugikortasunaren eta bere profesionalen gaitasun maila garaien arabera kontzeptualizatu ohi dira, dakarren lan prozesuaren eta industria horien parte ere badiren instalazio eta enplegu ez espezializatuen beharrezko azpiegituraren arabera baino areago. Beren produktuen hipermugikortasunarekin batera, badago lan egitura zabalago bat, horren mugikorra ez dena eta, zalantzarik gabe, behar-beharrezko dituen hiri nagusietan aurkitzen ditugun giza eta telekomunikazio baliabideak.

Globalizazioak azken hamarkadan hartutako forma espezifikoek antolakuntza alorreko eskakizun bereziak sortu dituzte. Finantza eta zerbitzu espezializatuak merkatu globalen sorrerak, inbertsioaren hazkundeak nazioarteko transakzio mota nagusi gisa, horrek guztiak ekarri du aginte funtzioen hedapena, baita enpresentzako zerbitzu espezializatuen eskariarena ere.

Funtsezko premisa moduan, ezin dugu jakintzat eman sistema ekonomiko global baten existentzia, baizik areago aztertu egin beharko genituzke globalizazio ekonomikorako baldintzak gertatzen diren modu zehatzak. Horretarako ez da nahikoa multinazionalen gaitasun komunikatiboak eta boterea aztertzea, sistema ekonomiko globalak ezartzeko behar diren instalazio azpiegitura eta lan prozesuak ere aztertu behar dira, barne hartuta kontrol globala praktikatzeko potentziala diren faktore produktiboen ekoizpena eta ekoizpen horretarako behar diren enpleguen azpiegitura. Kontrol globalaren praktikan jartzen da enfasia orain: sistema produktibo global baten antolakuntza eta kudeaketa, bai finantzarako merkatu global bat ekoiztea eta erreproduzitzea, biak kontzentrazio ekonomiko egoera batean. Lekua eta produkzioa berreskuratzeak esan nahi du halaber xehetasun empiriko handiekin azter daitezkeela prozesu globalak.

Hona iritsita, bi ohar egin daitezke. Bata, neurri handi batean ekonomia globala prozesu zehatzetan gauzatzen dela, leku espezifikoetan, eta gauza bera gertatzen dela informazio industria aurreratuetan.

Bereizi egin behar dugu transmisio/komunikazio globalerako gaitasunaren eta hori ahalbidetzen duten baldintza materialen artean; finantzen globalizazioaren eta hura ahalbidetzen duten baliabide multzoaren artean (eraikinetatik eskulaneraino); eta gauza bera gainerako sektoreekin.

Bigarren oharra da telematikari esker gertatutako jarduera ekonomikoaren sakabanaketa espazialak berez dakarrela funtzio zentralen hazkundera, sakabanaketa hori egungo sistema ekonomikoaren ezaugarri den etekinen kontrol, jabego eta eskuratzearen kontzentrazio etengabe baten egoeran gertatzen den neurrian. Galde genezake, era kontzeptualago batean, halako kontzentrazio mailara iristeko joera indartsuak dituen sistema ekonomiko batek aglomerazio fisiko puntuak falta zaizkion ekonomia espazial bat izan ote dezakeen.

Zentraltasunaren eta marjinaltasunaren geografia berri bat

Esan genezake ekonomia globala laukiteria batean gauzatzen dela; mundu osoa hartzen duen laukiteria hori leku estrategikoei osatzen dute, eta horien artean komertzio eta finantza gune nagusiak agertzen dira. Laukiteria global horretaz pentsa genezake zentraltasunaren geografia berri bat osatzen duen zer moduan, nazio mugak eta ipar-hego bereizketa zaharra gainditzen dituen. Geografia politiko paralelo baten balizko sorrera adierazten du. Hirien eta haien alkateen sareen indar gero eta handiagoa da horren forma sortu berri bat.

Hiriarteko mailako zentraltasunaren geografia ekonomiko berri horien arteko indartsuenak nazioarteko alorreko komertzio eta finantza zentro nagusiak lotzen ditu:: New York, Londres, Tokio, Paris, Frankfurt, Zurich, Amsterdam, Los Angeles, Sydney eta Hong Kong, besteak beste. Baina geografia horren barruan sartzen dira orobat beste zenbait hiri, hala nola Sao Paulo, Buenos Aires, Bangkok, Taipei eta Mexiko Hiria. Aipatu hiri horien arteko transakzioen bizitasuna, batez ere finantza merkatuez, zerbitzu transakzioez eta inbertsioaren bidez, oso areagotu da, erabilitako magnitude ordenak bezalaxe. Aldi berean, desberdintasun gero eta biziago bat gertatu da baliabide eta jarduera estrategikoen kontzentrazioan, hiri horietako bakoitzaren eta herrialde bereko beste hiri batzuen artean.

Espero zitekeen orain merkatu globaletan integratutako finantza gune kopuru gero eta handiagoak murriztu egingo zukeela finantza jardueraren kontzentrazioaren neurria gune nagusietan. Hori espero zitekeen ere transakzio bolumen globalean gertatutako hazkunde itzela kontuan hartuta. Hala eta guztiz ere, kontzentrazio mailak aldatu gabe jarraitzen dute finantza sektorean eta sektore horri lotuta dagoen azpiegitura teknologikoan gertatutako eraldakuntza itzelen aurrean.

Finantza eta zerbitzu espezializatuetarako merkatu globalen hazkundera, mantentze sare transnazionalen beharra, nazioarteko inbertsioetan gertatutako hazkunde handiak sortutako mantentze sare transnazionalen beharrak, nazioarteko jarduera ekonomikoa arautzeko orduan gobernuak betetzen duen paper mugatuak eta horren ondorioz gertatutako beste instituzio-esparru batzuen gorakadak -batez ere merkatu globalak eta korporazioen bulego nagusiak-... horrek guztiak adierazten du badaudela prozesu

ekonomiko transnazionalak, kokaleku ugariak dituztenak herrialde bat baino gehiagotan. Nazioarteko sistema urbano baten sorrera ikus dezakegu hor, hastapenetan bederen.

Halako hirietan begien bistakoa da mundu merkatuetaranzko joera nabarmena, eta horrek auziak planteatzen ditu hiri horiek beren nazio-estatuarekin, beren eskualdeekin eta egitura ekonomiko eta sozial zabalagoekin duten artikulazioari buruz. Hiriak beren eskualdeko ekonomietan sakon uztartuta egon dira, eta sarri askotan islatu dituzte haren ezaugarriak; oraindik ere halaxe egiten dute gehienek. Baina ekonomia globaleko leku estrategikoak diren hiriek, neurri batean behintzat, beren eskualdearekin harreman gutxi izateko joera izaten dute. Horrek talka egiten du sistema urbanoen inguruko jakintza tradizionalaren oinarritzko premisa batekin, alegia, sistema horiek sustatu egiten dituztela eskualde eta nazio alorreko ekonomien lurralde alorreko integrazioa.

Hiri global eta erregionalen hierarkia berriekin batera, badago lurralde oso zabal bat, gero eta periferikoagoa bihurtuz joan dena, eta gero eta baztertuago geratu dena ekonomia global berrian garapen ekonomiko elikatzen duten prozesu ekonomiko nagusietatik. Garai batean garrantzitsuak ziren hainbat eta hainbat manufaktura gune eta portu hiri funtzioak galduz joan dira eta gainbeheran daude, ez horren garatuta ez dauden ekonomietan bakarrik, baita ekonomia aurreratuenetan ere. Hortxe dugu globalizazio ekonomikoaren beste ondorio bat.

Baina hiri globalen barruan ere zentralitatearen eta marjinalitatearen geografia berri bat ikusten dugu. Hiri erdialdeek eta negozio gune metropolitarrak inbertsio itzelak hartzen dituzte higiezinaren sektorean eta telekomunikazioetan, errenta apaleko hiriguneak baliabiderik gabe dauden bitartean. Goi mailako heziketa duten langileek ikusten dute errentak inoiz ezagutu gabeko mailetaraino hazten zaizkiela, gutxi kualifikatutako edo batere kualifikaziorik gabeko langileek berenak nola hondoratzen diren ikusten duten bitartean. Finantza zerbitzuek sekulako etekinak sortzen dituzte, zerbitzu industrialek lanak dituzten bitartean bizirik irauteko. Joera horiek, intentsitate maila desberdinekin, begien bistakoak dira mundu garatuko hiri nagusi kopuru gero eta handiagoan, eta gero eta gehiago ari da gertatzen finantza merkatu globaletan integratu diren garapen bidean dauden zenbait herrialdetan (Sassen, 1996: 2. atala).

Egungo hiri ekonomia

Horrek ez du esan nahi dena aldatu denik hiri handien ekonomian. Alderantziz, jarraitutasun handia eta antzekotasun handia dago nodo globalak ez diren hiriekin. Gertatzen dena, areago, zera da, prozesu eta merkatu globalen ezarpenak ekonomiaren sektore internazionalizatua argi eta garbi hedatzea ekarri duela, eta beste ebaluazio dinamika bat inposatzea, sarritan ondorio suntsitzaileekin hiri ekonomiako sektore zabalentzat. Sektore

internazionalizatuan, alegia, finantzetan eta jarduera laguntzaileetan (hots, jatetxe eta hotelak) 80ko hamarkadan barrena gertatutako prezio eta etekin maila garaiek gero eta zailago jarri zieten gainerako sektoreei espazio eta inbertsio bila lehiatzea. Inbertsio askok degradazio edo/eta lekualdatze dezentea ezagutu dute; edo indar ekonomikoa galdu dute, halako neurrian, non ezin izan duten beren espazio ekonomikoa berreskuratu atzeraldi ekonomikoak sektore menderatzaileak ahuldu dituenean. Horren argigarri dira auzo dendak, tokikoen beharrak betetzen zituztenak, desagertu egin direla, eta haien ordez etorri aberatsentzako denda eta jatetxeak, goi mailako errentak dituzten hiri elite berriak zerbitzatzeko. Nazioarteko finantza eta zerbitzu sektoreen etekin mailetan gertatutako gorakada biziak ere lagundu zuen haren ondoren etorritako krisialdia horren bat-batekoa izan zedin. Joera horiek nabarmenak dira mundu garatuko hiri askotan, baina gutxitan iritsi dira AEBetako hiri nagusietan ikusi den garratzasun mailara (ikus, adibidez, Le Debat, 1994, Parisi dagokionez; Todd, 1995 Torontori dagokionez, etab.).

Beste magnitude ordena batean izan arren, joera horiek agerian geratu ziren orobat 80ko hamarkadaren amaieran zenbait mundu merkatutan integratu diren garapen bideko herrialdeetako hiri nagusi askotan: Sao Paulo, Buenos Aires, Bangkok, Taipei eta Mexiko Hiria adibide batzuk besterik ez dira (xehetasun gehiago ikasteko, ikus Milton Santos-ek Sao Paulori buruz argitaratutako serieak; Sassen, 1994; Knox eta Taylor, 1995). Nukleo berri hori hiri horietan gara zedin, funtsezkoak izan ziren halaber finantza merkatuen desarautzea, zerbitzu finantzario eta espezializatuen eta mundu merkatuetan integratzearen garrantzi gero eta handiagoa, higiezinaren alorreko espekulazioa eta errenta handientzako aristokratizatzea denda eta etxebizitzetara dagokienez. Burtsak inbestitzaile atzerritarrei irekitzea eta behinola sektore publikokoak izandako enpresen pribatizatzea funtsezko esparru instituzionalak izan dira artikulazio hori gerta zedin. Hiri horietako batzuen tamaina itzela kontuan hartuta, konplexu ekonomiko horren eragina ez da beti Londres edo Frankfurtetako hirierdian bezain nabarmena, baina eraldaketa gertatu egin da, gertatu denez.

Produkziorako zerbitzuetan gertaturiko hazkunde maila jaso horiekin batera, hiri nagusietako merkatal eta finantza zerbitzuetako enpleguaren espezializazio mailan ere hazkundera gertatu zen 80ko hamarkadan zehar. Finantzak eta produkziorako zerbitzu jakin batzuk munduko nazioarteko finantza gune handietan kontzentratzeko joera hedatua dago gaur egun: Toronto eta Sydneytik Frankfurt eta Zurichera, Sao Paulo eta Mexiko Hiriatik pasatuz, espazializazio gero eta handiagoa ikusten ari gara finantzen eta harekin lotutako zerbitzuen esparruan hirietako erdiguneetan. Hiri horiek esportaziorako zerbitzuen ekoizle moduan sortu dira, eta espezializaziorako joera dute. New York eta Londres ekoizle eta esportatzaile gailenak dira finantza zerbitzuetan, kontabilitatean, publizitatean, kudeaketan, aholkularitzan, nazioarteko lege zerbitzuetan eta bestelako negozioetarako zerbitzuetan (esate baterako, New Yorken 1995eko abenduan zeuden 2,8 milioi lanpostuetatik, ia 1,3

milioi esportaziora bideratuta zeuden). New York bezalako hiri bat zerbitzu horietarako nazioarteko merkatu garrantzitsuenen artean dago, eta zerbitzuak esportatzeko munduko iturburu handiena dugu New York.

Herrialde baten barruko zenbait hiriren artean ere aurkitzen dira espezializaziorako joera horiek. AEBetan, New York gailentzen da banka sektorean, baloreetan, enpresa administrazioan, kontabilitatean eta publizitatean. Washington, berriz, lege zerbitzuetan, informatika eta datu-prozesatzean, kudeaketa eta harreman publikoetan, ikerkuntza eta garapenean eta bazkide erakundeak. New York espezializatuago dago gune finantza eta merkatal gisa, bai kulturagune gisa ere. Washingtonen gertatzen den legegintza jardueraren parte batek egiatan baliagarri suertatzen zaie New York hiriko enpresei lege eta arau prozedurak jarraitu, presio-taldeekin harremanetan jarri, etab. egin behar dutenean. Izan ere, prozesu horiek nazioko hiriburuan gertatzen baitira.

Garrantzitsua da aitortzea manufaktura sektoreak funtsezko sektore ekonomiko gertatzen dela ekonomia horietan guztietan, nahiz eta hiri horietako batzuetan halakoa izateari utzi dion. Geroago itzuliko naiz kontu horretara.

Produkzio-konplexu berri baten eraketa

Produkziorako zerbitzuen hazkunde azkarra eta neurriz kanpoko kontzentrazioa hiri zentraletan gertatu behar ez zuen gauza da, informazio industriaren inguruko ideia klasikoen arabera. Zerbitzu horiek erabat ezarrita daudenez informazio teknologia aurreratuenetan, espero zitekeen hiri handietan ohikoak diren kostu handiak eta kongestioa saihestuko zituzten kokapen aukerak izatea. Hiriek, ordea, aglomerazio ekonomiak eta ingurune oso berritzaileak eskaintzen dituzte. Halako zerbitzuetako batzuk enpresan bertan ekoizten dituzte konpainiek, baina parte handi bat kanpoan erosten zaie zerbitzu espezializatuetako enpresei. Eskatzen diren zerbitzuen konplexutasun, aniztasun eta espezializazio gero eta handiagoa dela eta, eragingarriagoa izaten da enpresa espezializatuei erostea enpresak berak profesionalak kontratatzea baino. Mota horretako zerbitzuen eskari gero eta handiagoak ahalbidetu egin du zerbitzu espezializatuetako sektore baten bideragarritasun ekonomikoa.

Zerbitzu horietan badago prozesu produktibo bat beste zerbitzu espezializatu batzuen hurbiltasunetik irabazten duena. Hori era berezian gertatzen da industria horietako sektore aurreratu eta berritzaileenetan. Konplexutasunak eta berritasunak sarri izaten dute zenbait industriatik datozen faktore produktibo oso espezializatuen beharra. Finantza tresnak dira horren adibide ona. Finantza tresna bat ekoizteko kontabilitatetik, publizitatetik, adituen lege aholkularitza, aholkularitza ekonomikotik, harreman publikoetatik, diseinutik eta inprentatik datozen faktore produktiboak behar dira. Sektore horietan, denborak pisua ordeztzen du aglomerazioaren aldeko indar gisa.

Hau da, inolako presarik ez balego, irudika liteke enpresa espezializatu sorta oso sakabanatu bat existitzea, beren artean elkarlanean jardungo luketenak. Halaxe gertatzen da sarri eragiketa ohikoenetan. Denbora funtsezkoa denean, ordea, gaur egun industria horietako sektore aurreratuetako askotan gertatzen den bezala, aglomerazioaren onurak oso handiak izaten jarraitzen dute, halako neurrian, non ez baitakar soil-soilik kostu abantaila bat, antolatzeke ezinbesteko modua baizik.

Mugapen konbinazio horrexek eragin du hiri nagusi guztietan produkziarako zerbitzu-konplexu bat eratu izana. Produkziarako zerbitzu-konplexu horrek lotura estu-estua du bulego nagusi korporatiboen munduarekin; sarri irudikatzen dira bulego nagusiek eta zerbitzu korporatiboek batera osatutako konplexu baten osagai modura. Baina nik uste bien artean bereizi beharrean gaudela. Egia izan arren bulego nagusiek hirietan neurritz kanpo kokatzeko joera izaten jarraitzen dutela, haietako hainbat periferiara aldatu dira azken bi hamarkadetan. Izan ere, bulego nagusiak hirietatik kanpo koka daitezke.

Baina produkziarako zerbitzu-konplexu bat behar dute nonbait, beharrezko zerbitzu espezializatuak eta finantzabideak erosi edo kontratatu ahal izatearren. Atzerrian jarduera bizia duten edo negozio alor oso berritzaile eta konplexuetan dauden enpresen bulego nagusiak ere hiri nagusietan kokatzeko joera izaten dute. Labur esanda, jarduera alor ohikoei dagozkien enpresek, eskualde edo nazio merkatuetan dihardutenek batez ere, gero eta askatasun handiagoa dutela dirudi beren egoitza nagusiak hirietatik kanpo kokatu edo bertara aldatzeko orduan.

Baina nire ustez gauza bat dago argi, alegia, bi motatako bulego nagusiek zerbitzu korporatiboen sektoreko konplexu bat behar dute nonbait kokatuta. Ziur aski non aurkitzen den gero eta garrantzi gutxiagoko gauza da bulego nagusi askoren, ez guztien baina, ikuspegitik. Produkziarako zerbitzu enpresen ikuspegitik, esaterako konplexu espezializatu baten ikuspegitik, aukera gehiago daude hiri batean koka dadin hiri inguruko bulego parke batean baino. Azken horietan kokatuko dira produkziarako zerbitzu enpresak, ez, ordea, zerbitzu-konplexu bat. Eta ezaugarri horiek dituen konplexu batek bakarrik erantzun diezaike eskari korporatibo aurreratu eta korapilatsuenei.

Egoitza nagusi korporatiboak eta hiriak

Gauza arrunta da literaturan oro har eta zenbait txosten akademikotan ere bulego nagusien kontzentrazioa erabiltzea hiri bat nazioarteko negozio gune ote den adierazteko. Horren ondorioz, bulego nagusien galera hiri baten posizioaren gainbehera moduan interpretatzen da. Bulego nagusien kontzentrazioa adierazle gisa erabiltzea neurri benetan arazotsua da, korporazioak sailkatzen diren modua kontuan hartuta.

Nazioarteko finantza eta merkatal guneetan zer bulego nagusi kontzentratzen diren aldagai sorta baten mende dago. Lehenbizikoa, bulego nagusiak neurtzeko edo besterik gabe zenbatzeko moduak berez ezartzen du jada diferentzia. Sarri askotan, enpresaren tamaina, enplegu eta diru sarrera orokorre dagokienez, izaten da neurri gakoa. Kasu horretan, munduko enpresa handienetako batzuek manufaktura enpresak izaten jarraitzen dute, eta horietako askok beren fabrika-komplexu handienetik hurbil edukitzen dituzte bulego nagusiak, zaila baita halako komplexu bat hiri handi batean egotea, espazio mugapenak direla eta. Hala ere, gerta liteke enpresa horiek bigarren mailako bulegoak izatea hiri nagusietan funtzio oso espezializatuak bete ahal izateko. Gainera, manufaktura enpresa asko nazio merkatura daude bideratuta eta ez zaie beharrezkoa hiri bateko negozio nazionalako gune batean kokatuta egotea. Esaterako, 60ko eta 70eko hamarkadetan zehar New York hirian gertatu zen bulego nagusi garrantzitsuen irteera, medioetan oihartzun handia izan zuena, funtsean hiru enpresa motari zegokion. «Fortune»k argitaratutako AEBetako 500 enpresa handien zerrendari erreparatzen badiogu (cf. «Fortune aldizkariaren 500en zerrenda»), horietako asko New Yorketik eta beste zenbait hiri nagusitatik alde egin dute. Tamainari begiratu beharrean enpresaren diru sarrera guztietatik nazioarteko salmentei dagokien proportzioari begiratuz gero, «Fortune»ko 500en zerrendan agertzen ez diren enpresa asko sartuko lirake jokoan. Esate baterako, New York hiriarren kasuan emaitzak izugarri aldatzen dira: beren diru sarreraren erdia baino gehiago nazioarteko salmentetatik lortzen dituzten enpresen %40k New York hirian daukate egoitza nagusia.

Bigarrenez, herrialde baten sistema urbanoaren izaera faktore bat da. Hirien gailentasun nabarmenak bulego nagusien kontzentrazio neurri kanpoko bat ekartzeko joera izango du, zer neurri erabili dugun kontuan hartu gabe. Hirugarrenez, historia ekonomiko eta tradizio komertzial desberdinak konbinatu egin daitezke emaitza desberdinak emateko. Gainera, gerta liteke bulego nagusien kontzentrazioa fase ekonomiko espezifikoko bati egokitzea. Adibidez, 500en zerrendako lehen enpresek bulego nagusiak New Yorketik atera zituzten bitartean, Tokio bulego nagusiak irabazten aritu da. Osaka eta Nagoya, Japoniako beste bi gune ekonomiko garrantzitsuak, egoitza nagusiak galtzen ari dira, Tokioren onerako. Hori lotuta dago neurri batean ekonomia japoniarraren internazionalizazio gero eta handiagoari eta horren eraginez gertatutako aginte eta mantentze funtzio zentralen areagotzeari nazioarteko negozio gune nagusietan. Japoniaren kasuan, ekonomiaren gobernu-erregulazio dezentea bulego nagusiak Tokion kokatzera eramaten duen beste faktore bat da, nazioarteko jardura guztiek zenbait gobernu onespentatik pasatzen jarraitu behar duten neurrian.

Ikerketa eta politiken programa

Ikerketa eta politikei dagokienez zenbait kontu sortzen dira. Luzatu egingo naiz horietako batzuen inguruan, eta beste batzuk aipatu besterik ez ditut egingo.

1. Telematikaren eragina hirietan

Telematika eta globalizazioa espazio ekonomikoaren berrantolaketaren funtsezko indar modura agertu dira. Berrantolaketa horrek barne hartzen du jarduera ekonomiko gero eta gehiagoren birtualizazio espazialek bertan jarduera ekonomikoak kokatzeko egindako ingurune eraikiaren geografiaren berkonfigurazioraino. Espazio elektronikoaren geografian dela, ingurune eraikiaren geografian dela, berrantolaketa horrek aldaketa instituzional zein estrukturalak ekartzen ditu.

Hiri globalak eta balio globalen kateak

Espazio elektronikoaren bitartez nagusitzen ari den topografia ekonomiko berri zabala une bat da, neurri handi batean espazio ez elektronikoetan kokatuta dagoen kate ekonomiko are zabalago baten zatiki bat. Ez dago erabat birtualizatuta dagoen enpresarik, ezta erabat digitalizatuta dagoen industriarik ere. Informazio industria aurreratuenak ere, hala nola finantzak, parte batean bakarrik daude kokatuta espazio elektronikoan. Gauza bera gertatzen da produktu digitalak fabrikatzen dituzten industriekin, software diseinatzearekin, esaterako. Jarduera ekonomikoaren digitalizazio gero eta handiagoak ez du ezabatu nazioarteko finantza eta merkatal gune nagusien eta haiek beren baitan gordetzen dituzten osagai materialen beharra, puntako azpiegitura telematikoa hasi eta talentu intelektualeraino.

Alabaina, telematika eta globalizazioa espazio ekonomikoaren berrantolatzen duten funtsezko indar moduan sortu dira. Berrantolatze hori jarduera ekonomiko gero eta gehiagoren birtualizazio espazialek bertan jarduera ekonomikoak kokatzeko egindako ingurune eraikiaren geografiaren berkonfigurazioraino doa. Nola espazio elektronikoan hala ingurune eraikiaren geografian, berrantolaketa horrek aldaketak ekartzen ditu antolakuntzari eta egiturari dagokienez. Telematikak maximizatu egiten du sakabanaketa geografikorako potentziala, eta globalizazioak ondorioztatzen duen logika matematikoak maximizatu egiten ditu halako sakabanaketa baten erakargarriak edo errentagarritasuna.

Zentraltasunaren korrelatu espazialean teknologia berrien eta globalizazioaren bidez gertatutako eraldaketak arazo multzo berri bat sortzen du gaur egun zentraltasun kontzeptuaren inguruan, egungo sistema ekonomikoan honako hauek gertatzen direlako:

- a) transakzioen zati bat distantzia eta lekua neutralizatzen dituzten teknologien bidez gertatzen dira, eta gainera eskala globalean;
- b) zentraltasuna ingurune eraiki eta forma urbano mota jakin batzuetan gauzatu ohi da tradizioz, hau da, negozio gune zentrolean. Gainera, zentraltasunaren geografia berri bat gertatzeak, transnazionala izanda ere, aglomerazio gune estrategikorik ez duen geografia ekonomiko batean ez dauden

araudiak aplikatzeko aukerak ematen ditu. Badira gehiago ikertzea eskatzen duten gutxienez bi arazo multzo:

- 1) Izugarri digitalizatuta dauden sektore ekonomiko liderrek azpiegitura, beharrezko lan baliabide, talentu eta eraikin kontzentrazio handiak dituzten egoitza estrategikoak behar dituzte. Horrek finantzetarako balio du, baita industria multimedietarako ere, produkzio digitaleko prozesuak erabili eta produktu digitalizatuak fabrikatzen baitituzte. Zein da artikulazio sorta eta haien adierazpen espaziala enpresa baten edo, era orokorrago batean, erakunde baten zer birtualaren eta osagai errealeen artean? Zein dira ondorioak espazio urbanorako, ekonomia urbanorako eta gobernu urbanorako?
- 2) Espazio elektronikorako azpiegituraren banaketan (ordenagailu sare pribatua dela, internet dela), espazio elektronikora sartzeko baldintzetan eta, behin espazio elektronikoa horren barruan zaudenean, potentzia handiko segmentu eta interesguneetara sartzeko baldintzetan gertatzen ari diren desberdintasun biziak laguntzen ari dira zentraltasunaren geografia berriak sortzen, bai lur gainean bai espazio elektronikoa. Horrek zer dakarkie hiriei?

2. Produkzio industrialaren lekua zerbitzuen hiri ekonomia berrian

Ikertu eta eztabaidatu egiten den beste gai bat zera da, fabrikazioaren eta produkzioko zerbitzuen arteko harremana hiri ekonomia aurreratuan (Drennan, 1992; Markusen eta Gwiasda, 1995). Zerbitzu ekonomia berriak onura hartzen du produkzio industrialetik, produkzioko zerbitzuen sektorearen garapena elikatzen duelako, baina berdin-berdin egin dezake hori gune zehatz horretan, eskualdean edo atzerrian kokatuta egonda. Produkzio industrialak, eta neurri berean meatzaritzak eta nekazaritzak, produkzio zerbitzuen eskaria elikatzen duten bitartean, zerbitzu horien kokapen errealeak bigarren mailako garrantzia du alor globaleko zerbitzu enpresen kasuan; hala, manufaktura enpresa handi batek bere fabrikak atzerrian edo herrialde barruan edukitzea nahiko gauza hutsala da, baldin eta bere zerbitzuak maila garaiko enpresa horiei erosten badie. Bigarrenez, fabriken sakabanaketa espazialak, batez ere nazioarteko mailan gertatzen denean, egiatan areagotu egiten du produkzioko zerbitzuen eskaria, transakzioen konplexutasun handiagoa dela eta. Horra globalizazioaren beste ondorio bat: egoitza nagusia New York, Londres edo Parisen duten produkzioko zerbitzu enpresen garapena bizkortu egin daitekeela munduko edozein lekutan kokatutako produkzio industrialaren bidez, baldin eta sare korporatibo multinazional batean badago. Gogoratzea merezi du General Motors enpresa produkzio enpleguak atzerrira eramaten eta aldi berean Detroiteko enplegu oinarria suntsitzen ari zen bitartean, haren New Yorkeko finantza bulego nagusiak, eta harreman publikoetarakoak, beti bezain dinamiko zeudela, areago, inoiz baino lan gehiagorekin eskuen artean.

Hirugarrenez, produkzioerako zerbitzuen sektorearen parte handi bat elikatzen da produkzio industrialarekin zerikusirik ez duten merkatal eta finantza transakzioak (finantza merkatu globaletako askoren kasuan bezala) edo bestela produkzio industrialaren bigarren mailako gauza den merkatal eta finantza transakzioetatik; hala gertatu da bategite eta erosketa jardueraren parte handi batean, salerostean zentratzen baitzen benetan, manufaktura enpresak erostean baino gehiago. Askoz gehiago ikertu behar ditugu produkzio industrialaren eta produkzioerako zerbitzuen arteko erlazioaren hainbat alderdi zehatz, era berezian produkzio industrialaren sakabanaketa espazialaren eta mugaz gaindiko antolakuntzaren testuinguruan.

Produkzio industrialarekin badu orobat erlaziorik azpiegitura konbentzionalak duen garrantziak telematikaren erabiltzaile handiak diren sektore ekonomikoen funtzionamenduan. Arreta gutxiegi eskaini ohi zaio gai horri. Antza denez, ideia nagusia da telematikak premiagabeko egiten duela azpiegitura konbentzionala. Baina maila global edo nazionalean jardun dezaketen industria aurreratuetako prozesu produktiboaren izaerak hain zuzen lagun dezake esplikatzen joan den hamarkadan zehar ekonomia aurreratu guztietan negozio bidaietan gertatu den izugarritzko gorakada. Bulego birtuala azterketa teknologiko huts batek iradoki lezakeen baino askoz aukera mugatuagoa da. Jarduera ekonomiko mota jakin batzuk edonon kokatutako bulego birtual batetik eraman daitezke. Baina faktore produktibo espezializatu asko, dezente berrikuntza eta arriskuak hartzea eskatzen duten lan prozesuen kasuan, beste enpresa eta espezialistekin harreman zuzena izateko beharrak funtsezko kokapen faktorea izaten jarraitzen du.

Horregatik, sektore ekonomiko baten metropolizazio eta erregionalizazioak muga jakin batzuk dauzka, eskualdeko hiri nagusira edo nagusietara lan egitera joateko behar den denboraren arabera ezarriak. Egungo aro elektronikoaren ironia da eskualde ideia zaharra eta azpiegitura forma zaharrak osteratzen direla faktore kritikoen artean sektore ekonomiko gakoentzat. Eskualde tipo hau behialako eskualde formak ez bezalakoa da ikuspegi askotatik. Zentraltasun mota bati dagokio gehiago: telematika bidez elkarrekin lotutako nodoek osatutako laukiteria metropolitarrak. Laukiteria digital horrek funtziona dezan, beharrezkoa da halaber azpiegitura konbentzionala, zenbat eta aurrerago gero eta hobeto.

Marjinaltasun eta polarizazio forma berriak

Elkarri lotutako hiru faktorek -arestian garatutako sektoreak, enpresek antolaketarako dituzten gaitasun berriak eta teknologia berriak- laguntzen ari dira sortzen ez bakarrik zentraltasunaren geografia berri bat, marjinaltasunaren geografia berri bat ere bai. AEBetan, mendebaldeko Europan eta Japonian ikusitakoek adierazten dute politika eta gobernu ekintza beharko direla desberdintasun espazial eta sozialeko forma berriak murrizteko.

Sistema ekonomiko aurreratu batean, informazioaren ekonomian eta globalizazio ekonomikoan zer den garrantzitsua aztertzen denean, badira zenbait gaitz-ulertze, iruzkin orokorretan itxuraz

gailentzen direnak. Enpresa, langile eta kokaleku mota asko, hala nola zerbitzu industrialak, sistema ekonomiko aurreratu, informazioan oinarritu eta globalki bideratu batentzat desegokiak diruditenak, halako sistema batean daude integratuta egiatan. Beharrezko dute beren politikei aintzatespena eta laguntza ematea: ezin lehia daitezke puntako sektoreek prezioak eta estandarrak igoarazi dituzten ingurunetan, nahiz eta beren produktuen eta lanekuaren eskari handia egon. Esate baterako, Manhattaneko finantza industriak, dagoen industria sofistikatu eta konplexuenetako bat, kamioi gidariak behar ditu ez bakarrik software garraiatzeko, baita mahai eta bonbillak ere; kualifikatu gabeko langileen premia ere badu mantentze eta garbiketarako. Jarduera eta langile horiek bizimodua ateratzeko gai izan behar dute eskualdean gera daitezen nahi baldin badugu (ikus, adibidez, «Social Justice», 1994; «Competition and Change», 1995; King, 1996).

Baina badago behar beste aintzat hartzen ez den beste dimentsio bat, alegia, ebaluatze dinamika berri bat: globalizazioaren eta teknologia berrien konbinazioak faktore produktiboei, ondasun eta zerbitzuei balio/prezio bat emateko erabiltzen diren irizpide eta mekanismoak aldatu dituzte. Horrek ondorio txikitzaileak izan ditu zenbait leku, industria, enpresa eta langilerengan. Esaterako, finantza adituen soldatak eta finantza zerbitzuen irabaziak izugarri gora egin zuten 80ko hamarkadan barrena, kualifikatu gabeko langileen soldatak eta hainbat manufaktura enpresa tradizionalen irabaziak hondoratzen ziren bitartean.

4. Hiri globala eta estatu nazionala

Globalizazioak aldatu egin du ekonomien gobernuaren esanahia, baita harentzako egoitzak lekuz aldatu ere (ikus, adibidez, Mittelmann, 1996; «Competition and Change», 1995; Sassen, 1996). Munduko ekonomiaren historia luzearen egungo fasearen ezaugarri gakoetako bat informazioaren teknologien garrantzia, hari lotutako kapitalaren mugikortasun eta likidotasun hazkundera eta estatu nazionalak beren ekonomiaren sektore gakoan gaineko gaitasun arautzaileen ondoko gainbehera da. Horrek hiri gobernuari zer erronka eta zer aukera eskaintzen dizkion ulertzearen, kontuan hartu beharko ditugu, gutxienez, honako kontu hauek:

1. Bata da ekonomia globalak unitate azpinazionalekin duen harremana, bereziki nazioarteko finantza eta merkatal zentroak diren hiri nagusiekin duena. Horretarako ulertu beharra dago prozesu globalak nola dauden neurri batean ezarrita baliabide eta azpiegituren kontzentrazio estrategikoetan, hala nola finantza auzoetan, baita nazioarteko hiri handietan egon ohi diren mundu mailako kulturgune esaten zaien horiek duten garrantzia ere. Kulturgune horiek ekonomia globalarekiko lotura diren aldetik hiriak garrantzitsu egiten dituzten alderdi erabakigarrien artean daude.
2. Beste kontu bat da zein neurritan lagun dezaketen desarautzeak, pribatizazioak eta, oro har, estatu nazionalak ekonomian jokatzeko duen paper gero eta apalagoak -horiek guztiak baitira osagai gakoak globalizazioaren egungo

fasean- estatu nazional/ekonomia global diadaren ordez unitate azpinazionalak, batez ere hiri globalak, barne hartzen dituen triangelutze bat ezartzen. Argi dago horrek ondorio garrantzitsuak izango lituzkeela jarraitu beharreko politikan. Erlazio horren aldaketaren eta etorkizuneko aldaketa potentzialaren alderdi erabakigarri bat da kanpo politikaren edukia auzi ekonomikoetarantz gehiago bideratu izana, halako moldez, non kanpo politika esaten diogunaren parte handi bat gaur egun nazioarteko politika ekonomikoa baita.

Mundu ekonomiaren osaketaren eraldatzeak, batik bat finantzen eta sistema aurreratuen gorakada industria lider gisa, eragina izan du finantza guneak, merkatu globalak eta enpresa transnazionalak nagusi diren mundu ordena ekonomiko berri bat sortzen. Antzeko moduan, beste kategoria politiko batzuen garrantzia gero eta handiagoa ari gara ikusten, bai azpinazionalak bai nazioz gaindikoak. Nazioarteko merkatal eta finantza gune gisa funtzionatzen duten hirietan transakzio zuzenak egiten dira mundu merkatuekin, inongo gobernu ikuskaritzarik izaten ez dutenak, adibidez New York hiriko nazioarteko finantza guneko euro-merkatuak (Nazioarteko Banku Instalazioak). Hiri horiek eta bertan dauden merkatu eta enpresa globalki bideratuek bitartekari lana egiten dute mundu ekonomiak nazio-estatuarekin duen harremanean eta nazio-estatuaren arteko harremanetan ere.

5. Hiria aldarrikatzen

Aktore berri garrantzitsuak ari dira hiri horiek beraiantzat aldarrikatzen, batez ere enpresa atzerritarrek, gero eta ahalmen gehiago izan baitute negozioak egiteko ekonomia nazionalen desarautze progresiboari esker, baita nazioarteko negoziogizon-emakume kopuruak azken hamarkadan izandako gorakada itzelaren ondorioz ere. «Hirien erabiltzaileen» artean daude haiek, eta marka sakona utzi dute hiri nagusi askotako paisaia urbanoan. Hiriaren eskabidea ez da gezurtatzen, baina hirientzako kostuak eta irabaziak ez dira ia aztertu.

Hirien erabiltzaileek sarri askotan beren irudiaren arabera berrerratu dituzte hiriko espazio estrategikoak: nazioarteko negozioen hiperespazioa esaten zaiona dugu horren adibide; bertan daude arkitekto ospetsuek eraikitako aireportuak, mundu mailako bulego eraikin eta hotelak, puntako azpiegitura telematikoa eta segurtasun indar pribatuak. Hiriaren morfologia soziala aldatzen laguntzen dute, eta Martinottik (1993) bigarren belaunaldiko metropoli esaten diona, modernidade berantiarraren hiria, eratzen. Hiriaren erabiltzaileen hiri berri hori hauskorra da, eta haren bizirik irautea eta arrakastak produktibitate garaiko ekonomia batean, teknologia aurreratueta eta salerosketa biziagoetan daude zentratuta.

Alde batetik, horrek mahai gainean jartzen du zer den hiria nazioarteko negoziogizon-emakumeentzat, eta zein ideia izan zezaketen haiek erantzukizun zibikoaz. Bestetik, lan gogorra egin beharra dago, hots, erabaki ea nazioarteko negozio gune gisa funtzionatzen duen hiri batek benetan berreskuratzen dituen

tankera horretako gunea izateak dakartzan kostuak: puntako merkatal auzo bat mantentzeak dakartzan kostuak eta horrek eskatzen duen guztia, komunikazio instalazio aurreratuetatik maila garaiko segurtasuneraino («mundu mailako kultura» ahaztu gabe).

Beharbada irudikapen konbentzionalen beste muturrean daude hiria beraiantzat aldarrikatzeko indarkeria politiko urbanoa erabiltzen dutenak, baina aldarrikapen horrek ez dauka benetan «hiriaren erabiltzaile» berriek gozatzen duten zilegitasuna. Eskakizun horien egileak borrokatzen ari dira aintzat hartuak izan daitezen, beren eskubideak ezartzearen alde, hiriari beren eskubideak eskatzen.

Ondorioak

Jarduera ekonomikoek alor metropolitarrak, nazional eta globalean, espazioan, sakabanatzeko duten joera hedatuek, globalizazioarekin lotu ohi ditugunak, maila goreneko kudeaketa eta kontrol eragiketen lurralde zentralizazio forma berrien eskaria ekarri dute ondorioz. Merkatu nazional eta globalek, bai globalki integratutako erakundeek ere, egoitza nagusiak behar dituzte bertan globalizazio lana egiteko. Gainera, informazio industriek azpiegitura fisiko zabala behar dute, jarduera hiperkontzentrazioa duten nodo estrategikoek osatua; bereizi beharra dago transmisio/informaziorako gaitasun globalaren eta hura ahalbidetzen duten baldintza materialen artean. Azkenik, informazio industria aurreratuenek ere lan prozesu bat daukate, parte batean behintzat kokapenari lotuta dagoena, bere produktuak horren mugikorrek direnean baliabide konbinazioa behar duelako.

Enfasi mota honi esker, hiriak gure garaiko informazio industria aurreratuentzako produkzio gunetzat jo ditzakegu, eta ekonomia korporatibo aurreratua gidatzeko behar den jarduera, enpresa eta enplegu azpiegitura berreskura dezakegu.